



**Osakidetza**

ARABA ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA  
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA ARABA

# **INFORMAZIOA ETA INTERESEKO DOKUMENTUAK**

**Martxoa - 2020**

2012an, Gasteizko Txagorritxu eta Santiago irakaskuntza-erietxeek bat egin zutenean, Arabako Unibertsitate Ospitalea (AUO) sortu zen, eta bera arduratu da ordutik osasun-prestakuntza espezializatua emateaz. Lau urteotan, jatorrizko irakaskuntza-unitate desberdinak integratu dira, irakaskuntza-dispositibo bakarra ezartzeko.

2016ko urtarrilean eratu zen Erakunde Sanitario Integratua (Araba ESI) zeinak erakunde bakar batean biltzen baititu asistentzia espezializatua (AUO) eta Lehen Mailako Arreta.

Arabako osasun-dispositiboen irakaskuntza-kalitatea hainbat aldiz kontrastatua izan da Osasun eta Kontsumo Ministerioaren auditorien bitartez, eta hala egiaztatzen du azkena egindakoak, duela gutxi gauzatu baita (2015eko azaroan).

Dokumentu honetan argitzen dira AUOn, Arabako ESIren barruan, ematen den osasun-prestakuntza espezializatuari buruzko intereseko alderdi gehienak.

## **ARABA ESI – AUO-KO IKASKETA-BURUTZA**

**IZPTA.: EDUARDO FERNÁNDEZ DOKTOREA.**

**IZPTA.: JUAN CARLOS ALONSO DOKTOREA.**

## **AURKIBIDEA**

- ✓ **ARAUDI OROKORRA.**
- ✓ **PRESTATZEN ARI DIREN ESPEZIALISTEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.**
- ✓ **IRAKASKUNTZA-BALIABIDEAK ETA IRAKASKUNTZA-BATZORDEA.**
  - **Irakaskuntza-plangintza.**
  - **Prestakuntza osagarriko oinarrizko programa.**
  - **Kanpoko txandaketak.**
  - **Liburutegia eta euskarako laborategiak.**
- ✓ **EBALUAZIOA.**
- ✓ **ERANSKINAK.**

✓ **ARAUDI OROKORRA**

**1.- Ikasketa-burutza**

Eduardo FERNÁNDEZ IBÁÑEZ doktorea. Ikasketa-burua

Juan Carlos ALONSO BLAS doktorea. Ikasketa-buruaren albokoa

**2.- Irakaskuntzako idazkaritza:**

TXAGORRITXU EGOITZA	SANTIAGO EGOITZA
<b>Kokalekua:</b> 6. solairua – D eremua	<b>Kokalekua:</b> 3. solairua – C pabilioia
<b>Idazkaria:</b> M <sup>a</sup> del Pilar RUIZ GÓMEZ	<b>Idazkaria:</b> Blanca MARRODAN PEREZ
<b>Telefonoa:</b> 945 00 <b>73 33</b>	<b>Telefonoa:</b> 945 00 <b>77 59</b>
<a href="mailto:DOCENCIAMEDICA.HOSPITALHUA@osakidetza.eus">DOCENCIAMEDICA.HOSPITALHUA@osakidetza.eus</a>	

**3.- Laneko arropa**

Pertsona orok erabilera pertsonalerako bi uniforme eta oinetakoak izateko eskubidea du. Arretaz zaindu beharko da emandako materiala: baldin eta galtzen bada, Zentroak ez du berriro emateko obligaziorik.

**4.- Jangelaren erabilera**

Guardiako egunetan jangelaren erabilera doakoa izango da.

**5.- Pertsona-bilagailua**

Presentzia fisikoko guardien hasieran jasoko da ospitaleko telefonogunean –behe solairuan– pertsona-bilagailua (ospitalean soilik erabili daitekeen telefono mugikorra) eta guardiaren amaieran itzuliko da.

## 6.- Lan-egutegia

Lan egindako orduen zenbatekoa ospitaleko gainerako medikuek dutenaren berdina izango da. Lan-egutegia espezialitate bakoitzari dagokion txandaketa-planak markatuko du.

## 8.- Baimenak, oporrak eta lizentziak

Prestatzen ari diren espezialistek Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko langileen lan-baldintzak arautzen dituen Akordioan eta otsailaren 2ko 12/2016 Dekretuan araututakoaren arabera jaiegunak, baimenak eta oporrak izango dituzte (plantillako medikuenen antzekoak). Unean-unean indarrean dagoen araudiaren arabera alda daiteke

### ✓ PRESTATZEN ARI DIREN ESPEZIALISTEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.

#### 1. Prestatzen ari den espezialistaren berariazko eskubideak

**(1146/2006 ED, urriaren 6koa, *Osasun Zientzietako espezialistak prestatzeko egoiliarren lan-harreman berezia arautzen duena*)**

Prestatzen ari den espezialistak ondorengo berariazko eskubideak izango ditu:

- Lortu nahi duen tituluari dagokion espezialitateko prestakuntza-ibilbide mota ezagutzea eta, kasua hala bada, egokitzapen indibidualak ere bai.
- Prestakuntza-programan aurreikusitako jarduerak garatzen diren bitartean lagunduko dion tutore bat izatea.
- Praktika profesional programatu, tutoretzapeko eta ebaluatu baten bidez, prestakuntza teoriko-praktikoa jasotzea, era horretan, espezialitatean modu autonomoan lan egin ahal izateko beharrezko ezagutzak eta erantzukizun profesionala arian-arian lortuz joateko, zentroaren jarduera asistentzian, bai ohikoan eta bai larrialdikoetan, integraztearen bitartez.
- Bere unitateari, zentroari edo erakundeari dagozkion honako hauei buruzko informazioa jasotzea: funtzioak, eginbeharrak, zereginak, programazio funtzionala eta helburuak; baita betetze-maila ebaluatzeko ezarritako sistemak ere.

- Bere lanbidea egikaritzekoa eta espezialitateari dagozkion jarduera propioak garatzekoa, gero eta erantzukizun handiagoz, prestakuntza-programan aurrera egin ahala.
- Prestatzen ari den espezialistak zerbitzuak eskaintzen dituen unitateko profesionalak nor diren jakitea eta, beharrezkoa irizten dionean, horiei galdetzea eta laguntza eskatzea, baina horrek ezin du eragin asistentzia ukatzea edo lanpostua uztea.
- Unitate akreditatutak esku-hartzen duen irakaskuntza, ikerketa, asistentzia eta kudeaketa klinikoko jardueretan parte hartzea.
- Bere jarduerak egoiliarren liburuan edo curriculum-agirian erregistratzea.
- Bere ikasketaren ebaluazio jarraitua, txandaketa bakoitzaren amaierakoa, urtekoa eta azkenekoa objektibotasun handienarekin jasotzea.
- Ebaluazioa negatiboa balitz, prestakuntza luzatzea, legez finkatutako baldintzetan.
- Dagokion prozeduraren arabera, urteko eta azken ebaluazioak berrikustea.
- Ordezkaritza izatea, indarrean dagoen legediaren arabera, Espezialitatearen Batzorde Nazionalean eta zentroetako Irakaskuntza-batzordeetan.
- Zentroaren antolakuntza eta funtzionamendua irakaskuntza-jarduerara zenbateraino egokituta dagoen ebaluatzea, informazioaren isilpekotasuna bermaturik dela.
- Irakaskuntza-erakundearen edo osasun-zerbitzuaren asistentzia eta babesa jasotzea, bere lanbidean jardutean edo bere funtzioak betetzean.
- Lan-osasunari dagokionez, zerbitzuak eskaintzen dituen erakundeko gainerako langileen babes berbera izatea.
- Bere plazari eustea, legez ezarritako iraungitze-kausaren batengatik ez bada.

## 2. **Prestatzen ari den espezialistaren berariazko betebeharrak**

***(1146/2006 ED, urriaren 6koa, Osasun Zientzietako espezialistak prestatzeko egoiliarren lan-harreman berezia arautzen duena)***

Prestatzen ari den espezialistak ondorengo berariazko betebeharrak izango ditu:

- Espezialitateko prestakuntza-programa gauzatzea lanaldi osoko dedikazioarekin. Egoiliar gisa jasoko duen prestakuntza bateraezina izango da beste ezein lanbide- edo heziketa-jarduerarekin, Doktoretza ikasketak salbuetsita.

(44/2003 Legea, azaroaren 21ekoa, osasun arloko lanbideak antolatzeari buruzkoa)

- Heztea eta prestatzea, tutoreen, osasungintzako langileen eta irakaskuntzako eta zuzendaritzako organoen –pertsone bakarrekoak edo kolegiatuak izan– jarraibideei kasu eginik, haiek arduratzen baitira, beren artean koordinaturik, zentroak ongi funtzionatzeaz eta dagokion espezialitateko prestakuntza-programaren garapenez.
- Irakaskuntza-unitatea eratzen duten erakundeetan aplikatzekoak diren araudiak eta funtzionamendu-arauak ezagutzea eta betetzea, bereziki, pazientearen eskubideei dagozkionak.
- Dagokion prestakuntza-programak eta zentroko antolamendu funtzionalak ezarritako zerbitzuak eta asistentzia-eginkizunak pertsonalki gauzatzea, espezialitateari dagokion gaitasun profesionala eskuratzeko eta, era berean, osasun-erakundearen helburuak lortzen laguntzeko.
- Baliabideak arrazionalki erabiltzea pazientearen mesedetan, eta bidegabeki ez erabiltzea bere edo hirugarren pertsonen probetxurako.

✓ **IRAKASKUNTZA-BALIABIDEAK ETA IRAKASKUNTZA-BATZORDEA:**

**Irakaskuntzako giza baliabideak:**

1- Berariazkoak

Ikasketa-burutza:

*Eduardo Fernández Ibáñez doktorea. Ikasketa-burua*

*Juan Carlos Alonso Blas doktorea. Ikasketa-buruaren albokoa*

2- Irakaskuntzako idazkaritza:

*Blanca Marrodan Perez and. (Arabako ESI AUO-Santiago)*

*M<sup>a</sup> del Pilar Ruiz Gómez and. (Arabako ESI AUO-Txagorritxu)*

3- Kalitateko goi-mailako teknikaria:

*Erika Vitoria Garcia and.*

4- Irakaskuntza-batzordea:

Lehendakaria, Ikasketa-burua:

*Eduardo Fernández Ibáñez doktorea.*

Ikasketa-burutzaren albokoa:

*Juan Carlos Alonso Blas doktorea.*

Batzordeko idazkariak:

*M<sup>a</sup> del Pilar Ruiz Gómez and.*

*Blanca Marrodan Perez and.*

Prestatzen ari diren mediku espezialistak:

*Mediku egoiliar bat prestakuntza-urte bakoitzeko ordezkari gisa eta F eta K*

*Medikuntzako egoiliarren ordezkari bat*

F eta K Medikuntzako irakaskuntza-unitateko ikasketa-burua:

*M. Jesús Serna Sagarminaga doktorea.*

Laneko Medikuntzako irakaskuntza-unitateko ikasketa-burua:

*M<sup>a</sup> Inmaculada Muro Ruiz de Arcaute doktorea.*

Erizaintzako irakaskuntza-arduraduna:

*David Miguel Martín jauna*

*Verónica Tiscar Gonzalez andrea*



Erizaintzako azpibatzordea: Lehendakaria: *Idoia Zamora Cordero andrea*

Lanbide Anitzeko Irakaskuntza Unitateko erizain tutore nagusia:

*Idoia Zamora Cordero andrea*

Kalitateko goi-mailako teknikaria:

*Erika Vitoria Garcia and.*

Zerbitzu akreditatuetako staffeko kideak:

*Zazpi tutore nagusi, egiaztatutako irakaskuntza-unitateen artetik.*

Zentroko zuzendari-gerentea:

*Jesús M. Larrañaga Garitano doktorea*

Zentroko zuzendari medikoa:

*Miguel Gutierrez Fraile doktorea*

Osasun Saileko ordezkaria:

*Rafael Andrés Barruso jn.*

#### 5- Irakaskuntzako beste figura batzuk

- **Irakaskuntza-unitate akreditatu bakoitzeko tutore nagusiak** (prestatzen ari diren bost espezialistako edo frakzioko bat). Berorien eginkizunen artean dago –EHAAn arautuak daude–, urtero, bere espezialitateko **prestakuntza-ibilbide mota** berrikustea eta Irakaskuntza-batzordeari aurkeztea hark onar dezan. Gida horretan egokituko dira zentroko irakaskuntza-prestazioetara espezialitate bakoitzeko Batzorde Nazionalak prestatutako heziketa-planaren gidalerroak. Berorietan jasoko dira aipatutako espezialitateko prestakuntza-urte bakoitzerako irakaskuntza-, ikerketa- eta asistentzia-helburu orokorrak. Halaber, kasu bakoitzean lortu beharko diren erantzukizun eta jakintza mailak ezarriko dira eta helburuen lorpena ebaluatzeko erabiliko diren tresnak ere zehaztuko dira. Era berean, beren kargura duten eta prestatzen ari den espezialista bakoitzarekin programa pertsonalizatu bat planifikatu beharko dute (**irakaskuntza-prestakuntzako banakako plana**), sistemaren heziketa-ahalmena zehaztu eta optimizatuko duena.

- Sostenguko tutore bana **espezialitateko**, akreditatu gabe daudenak barne, berorietan txandakatuko baitira prestatzen ari diren espezialistak.

✓ **Irakaskuntza-plangintza:**

Urtero **irakaskuntza-proiektu** bat idatziko da hurrengo urterako; bertan jasoko dira jarduerak hobetzeko planak eta plan ekonomikoa, zeina, zentroko Prestakuntza Batzordeari aurkeztu ondoren, Gerentziak onartu beharko baitu. Programatutako prestakuntza-jardueretan irakasle gisa parte hartzen duten pertsonen ordaintzeko Osakidetza tarifa ofizialak aplikatuko dira

Zentroko gerentziak, zuzendaritza medikoarekin eta ikasketa-burutzarekin batera, **irakaskuntza-kalitatearen kudeaketa-planaren** jarraipena egingo du eta urtero berrikusiko ditu irakaskuntza-programa eta ondorengo informazioa:

- Irakaskuntza-batzordeak egindako irakaskuntza-proposamena.
- Prestatzen ari diren espezialista berriak.
- Unitate berrien akreditazio/desakreditazioa
- Zentroaren irakaskuntza-ahalmenaren aldaketa esanguratsuak
- Prestakuntzako plangintza eguneratua, zerbitzuka, prestatzen ari diren espezialistentzat.
- Espezialitateko Batzorde Ebaluatzailearen urteroko bileratik lortutako zerbitzu akreditatuaren arabera irakaskuntza-kalitatearen adierazleen emaitzak.
- Gogobetetze-inkestei buruzko informazioa, hautemandako hobekuntza-arlo potentzialen iruzkinak barne

Irakaskuntza-batzordeak, zentroko zuzendaritzarekin koordinaturik, txandaketa guztietarako jarduera orokorrak deskribatzen dituen dokumentazioa prestatu edo, kasua bada, eguneratuko du, hala nola: Ebaluazio-prozedurak, laguntzak eta baimenak eskatzeko sistematika, prestakuntza-disfuntzioen aurreko jarduketa edo guardia medikoetako lan-arau orokorrak, indarrean dagoen legeriaren arabera

Halaber, urtero, Irakaskuntza-batzordeak **Jarduera-txosten** bat argitaratuko du, kontsultarako irekita egongo dena, non honako hauek jasoko diren: Batzordean urtean zehar tratatutako gai garrantzitsuenen laburpena, zentroko saio orokorren deskribapena, Unibertsitatearekiko erlazioak, zeharkako programa osagarriaren laburpena eta irakaskuntza-jardueraren kostuen erlazioa.

✓ **Prestakuntza osagarriko oinarrizko plana**

Tutoreek eta Irakaskuntza-batzordeak adostutako Prestakuntza osagarriko oinarrizko programak «nahitaezko, gomendagarri edo hautazko» gisa sailkatzen ditu ikastaroak eta haien lehentasuna eta egoiliarrek noiz egin behar dituzten adierazten du. Irakaskuntza-urte bakoitzaren amaieran, Irakaskuntza-batzordearen barruan, hurrengo urteko Zeharkako plan osagarria eratuko duten ikastaroen hautaketa egingo da.

Prestatzen ari den espezialista orok izango du eskubidea Irakaskuntza-batzordeak antolatutako ikastaro horietan parte hartzea eskatzeko, aldez aurretik izena emanda.

Ospitaletik kanpoko ikastaroetan parte hartzeko, araudi orokorra bete beharko du.

Hor sartzen dira medikuntzaren praktika globalari buruzko ikastaroak, ikerketa sustatzera bideratutakoak (ikerketarako gaikuntza, artikuluen irakurketa kritikoa, etab.), doktorego-tesia egitea errazteko ikastaroak, bai eta ikaskuntza sustatzeko ikastaro osagarriak ere, espezialitate jakin bateko zenbait irakaskuntza-programatan lortzen zailak gerta litezkeen jakintzako funtsezko alderdiak jorratzen dituztenak, hala nola Bioetika ikastaroa, Osasun Zientzietako informazio-baliabideak edota artikuluen irakurketa kritikoa

1. **Irakaskuntza-jarduera orokorrak:**

- Zentroko saio kliniko orokorrak:
  - Gaien hautaketa eta koordinazioa Saio klinikoaren Batzordetik egingo da.
  - Plangintzari begira, onarpenaren ebaluazioari buruzko informazioa bilduko da.
    - Astean behin.
    - Orduategia: 8:15etik 9:00etara.

- Deialdiak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira.
- Laguntza teknikoa Irakaskuntzako idazkaritzatik.
- Ikastaro propioak, irakaskuntza-programa osagarria:
  - Zentroko prestakuntza espezializatu eta jarraituaren erkide diren ikastaro guztiak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari akreditazio ofiziala eskatzearen bitartez egituratuko dira, eta beharrezkoak diren lege-betekizunak bete beharko dituzte.
  - Ikastaro guztiek beren urteko dokumentazioa eduki behar dute. Bertan, ikastaroa justifikatzeaz gainera, irakaskuntza-helburuak, programa espezifikoa, irakasleak eta ordutegia zehaztuko dira. Helburuen lorpena ebaluatzeko sistema egituratu bat izan beharko dute; helburu horien bitartez erabakiko baita esandako ikastaroak hurrengo urtean errepikatzea komeni den edo ez.
  - Irakaskuntza-ikasturte bakoitzaren hasieran, Irakaskuntza-batzordearen barruan, irakaskuntza-programaren ebaluazioa deituko da.
  - Irakaskuntzako idazkaritzan edukiko da aurreko urteko zerrenda, ikasturte bakoitzeko ebaluazioarekin batera.
  - Batzordean erabakiko da, aurreko programa oinarri hartuta, aldaketarik planteatu behar den edo ez, eta behin betikoa zehaztuko da, urteko prestakuntza-proiektuan sartuko dena.
  - Gaur egun, honako hauek dira ARABAKO ESI-AUOko egoiliar guztiei irekita dauden zeharkako programako ikastaroak:

<b>ARABAKO ESI - ARABAKO UNIBERTSITATE OSPITALEA</b>
<b>AUO-KO MEDIKUNTZA-IRAKASKUNTZA</b>
Medikuntza-ikerketako oinarrizko printzipioak
Eskuen garbiketarako tailerra
Biokimika Klinikoaren hastapenak
Tresna bidezko BBB
Oinarrizko espirometria interpretatzeko tailer praktikoa
Emergentziako medikuntzarako ekografia; oinarrizko maila eta ertaina
Babes erradiologikoa, oinarrizko maila A eta B taldea
BBB aurreratua (urtean bi ikastaro)
Aholku orokorrak AUOko Larrialdietan lan egiteko BAME-1entzat
Larrialdietako patologia: Larrialdietako egonaldiko hastapenak BAME-1entzat
Laneko arriskuen prebentzioa BAME-1entzat
Preskripzio elektronikoa (eOsabideko Farmazia Modulua) BAME-1entzat
Giza baliabideak BAME-1entzat.
Baliabide informatikoak Osasun Zientzietan eta bilaketa bibliografikoan
Etxeko ospitalizazioa
EKGren erabilera klinikoa
Arnasbideei buruzko Tailerra
Traumatologiako oinarrizko ikastaroa
Infiltrazioei buruzko tailerra
Larrialdietako ikastaroak (espezialitateka)
Minaren tratamendu farmakologikoa
Gaixotasun infekziosoak
Pazienteen kudeaketa
Bihotz-estimulazioari buruzko ikastaroa

<b>AUO-KO IKERKETA</b>
Bilaketa bibliografikorako tailerra
Ikerketa-proiektua egiten ikasteko tailerra
SPSS Windows-erako
Ikerketen emaitzen aurkezpena
Irakurketa kritikorako tailerra: Diagnostikoa eta tratamendua
Ikerketa klinikoaren alderdi etikoak eta lege-arlokoak
Ikerketako datu-baseak sortzeko jardunbide egokiei buruzko tailerra
Ebidentzia zientifikoa bilatzeari buruzko tailerra
Epidemiologiako oinarriko kontzeptuak
Osasun-ikerketak idatzi eta argitaratzeko baliabideen gida
Ikerketa-jardueraren integritatea eta efizientzia

## 2. Irakaskuntza-jarduerak irakaskuntza-unitateen arabera:

Irakaskuntza-unitate akreditatuek prestakuntza jarraituko eta ikerketako programa izango dute. Espezialitate bakoitzeko programaren barruan, prestakuntzako banakako planean txertatuta eta espezialista bakoitzari egokituta egongo den urteko programa bat garatuko da. Programa horretan, prestatzen ari den espezialistaren gero eta parte-hartze aktiboagoa planifikatuko da eta hurrengo atal hauek hartuko ditu barnean:

### 1. Saioak

- Saio klinikoak
- Saio mediko-kirurgikoak
- Kasu klinikoak

### 2. Biltzarretan parte hartzea, aurkezpenak barne:

- Eskualdekoak
- Nazio mailakoak
- Espezialitateko bilerak
- Espezialitateko sinposioak

3. Lan klinikoak argitaratzeko lankidetzatza
4. Doktorego-tesia aurkezteko balioko duen ikerketa-lerroan lan egitea, tutoretzapean.
5. Prestakuntza jarraituko ikastaroetara joatea. Ingeles maila egokikoak barne direla
6. Programaren azken urteetan, egoiliarak irakasle gisa parte hartzea lortzea prestakuntza jarraituko eta graduatu aurreko ikastaroetan.

Zerbitzu bakoitzeko tutorearen erantzukizuna izango da gauzatutako irakaskuntza-jardueren erregistro bat izatea non jasota geratuko diren jardueraren txostengilea, gaia, esparrua, iraupena, helburuak eta balorazioa.

✓ **Kanpoko txandaketak**

***(183/2008 Errege Dekretua, otsailaren 8koa, Osasun Zientzietako espezialitateak zehazten eta sailkatzen eta osasun prestakuntzaren zenbait ezaugarri garatzen dituena)***

Prestatzen ari diren espezialistek beren heziketarako egokiak diren txandaketak egingo dituzte beste zentro/ospitale batzuetan, zerbitzu arduradunak bere momentuan erabakitakoaren eta Irakaskuntza-batzordeak onartutakoaren arabera.

Kanpoko txandaketa deitzen zaio gure ospitaletik kanpora egiten den prestakuntza-aldiari, eta hori, gure ospitaleko Irakaskuntza-batzordeak ez ezik, txandaketa egin nahi den erietxeko Irakaskuntza-batzordeak eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak baimendu beharko dute.

Bada kanpoko txandaketa eskatzeko eredu bat –«KANPOKO TXANDAKETA BESTE ZENTRO BATEAN EGITEKO ESKAKIZUNA»– irakaskuntzako idazkaritzetan, eta bertan entregatu beharko da behin bete eta sinatu ostean.

Laguntza ekonomiko partzialak ere izango dira: «TXANDAKETETARAKO LAGUNTZEN ESKAKIZUNA». Urteko eskaera kopuruaren baldintzapean geratuko dira. Laguntza eman aurretik, txandaketa behar bezala onartuta egon beharko da.

✓ **Liburutegia:**

Gure ospitaleko liburutegi-sistemak, hemeroteka sendoa edukitzeaz gainera, oinarrizko hainbat liburu eta liburutegi birtualeko sistema modernoa ditu, guztia egoiliarren eskura. Irekita dago goiz eta arratsaldeko ordutegian.

Liburutegiko eduki informatiko guztia eguneko 24 orduetan kontsulta daiteke, hala Zentroko barne-saretik nola erakundeko kide guztientzat eskura dauden sarbide-gakoen bidezko konexio partikularretatik.

BAME prestakuntzan parte hartzen duten zerbitzuek liburutegi deszentralizatuak dituzte unitateetan, txandaketek irauten duten bitartean egoiliarren ikasketa eta kontsulta errazteko xedearekin.

- **Euskara laborategia:**

Euskara Batzordeak hizkuntza horren ikaskuntza edo hobekuntza erraztuko die interesatuei.

Erreferentzia / harremana: [itzulpenakarabaesi@osakidetza.eus](mailto:itzulpenakarabaesi@osakidetza.eus)



✓ **EBALUAZIOA**

⇒ ***Prestatzen ari den espezialista gainbegiratzea, ikasketak gainbegiratzea***

**1. SARRERA**

Egoitza-aldiak irauten duen bitarteko gaitasun profesionalak eskuratzeko prozesuaren jarraipena eta kalifikazioa prestakuntzaren ebaluazioen, urtekoaren eta azken ebaluazioaren bitartez egingo da (*183/2008 Errege Dekretua, otsailaren 8koa, Osasun Zientzietako espezialitateak zehazten eta sailkatzen eta osasun prestakuntzaren zenbait ezaugarri garatzen dituena*).

**2. EGOILIARRAK LANEAN HASTEAN**

Prestatzen ari den espezialista bere Irakaskuntza-unitatean hasi ondoren, harrera-bilera bat egingo da tutorearekin hari buruzko informazioa lortzeko (aurreko prestakuntza-aldiak, esperientzia, jakintzak eta intereseko beste datu batzuk), hala, beharrezkoa ikusten bada, haren prestakuntza-programa egokitzeko eta dagokion banakako prestakuntza-ibilbidea lantzeko.

Bilera horren erregistroa **Egoiliarraren hasierako fitxan** egingo da eta Irakaskuntzako idazkaritzari igorriko zaio, prestatzen ari den espezialistaren espedientean jaso dadin hasi osteko **15 eguneko epean**.

**3. PRESTAKUNTZAREN ALDIZKAKO EBALUAZIOA (HIRU HILEAN BEHINGOA)**

Prestakuntzaren ebaluazioa berezkoa du egoiliarren sistemaren izaera progresiboak, prestatzen ari den espezialistaren ikaskuntza-prozesuaren jarraipena egiten baitu. Era horretan, egoiliarraren aurrerabidea ebaluatzen da, lortutako gaitasuna neurtzen da dagokion espezialitateko prestakuntza-programan ezarritako helburuekin alderatuta, hobetzeko tartea duten eremuak eta gaitasunak identifikatzen dira eta haiek zuzentzeko iradokizun zehatzak proposatzen dira.

Egoiliarraren prestakuntzaren ebaluazioa egiteko xedearekin, tutorearen eta egoiliarraren arteko elkarrizketa egituratuak eta hitzartuak egin beharko dira aldizka, prestatzen ari den espezialistaren autoebaluazioa eta autoikasketa errazteko.

Elkarrizketa horiek, legez eskatzen denaren arabera, **lau izango dira, gutxienez, prestakuntza-urte bakoitzeko** eta horretarako, egoiliarrarekin adostuta, bileraren eguna, lekua eta ordua ezarri beharko dira. Ondorengo alderdi hauek baloratuko dira esandako bileran:

#### **OHIKO BILERA:**

- **Egindako txandaketak:** Proposatutako helburuak lortu diren baloratzea; ikasketako gabeziak hautematea, etab.
- **Gauzatutako irakaskuntza-jarduera:** Gauzatutako jardueren xehetasunak eta helburuak bete diren edo ez.
- **Gaitasun-arloen balorazioa:** Gaitasunak eskuratzeari buruzko balorazioa; hor sartzen dira egoiliarraren autoebaluazioa eta arlo batzuetako eta besteetako tutoreek egindako balorazioak.
- **Aurkeztutako dokumentazioa:** Aurkeztutako dokumentazioaren balorazioa; hor sartuko dira, nahitaez, egoiliarraren liburua eta egindako txandaketen ebaluazioak.
- **Ondorioak:** Eskuratutako konpromisoen xehetasunak, ondorioen eta kronogramaren arabera.

#### **EZOHIKO BILERA:**

- Zehaztu bileraren zergatia eta bertatik ateratako ondorioak.

Bilera honen erregistroa **Hiru hilean behingo prestakuntzaren ebaluazioaren fitxan** egingo da eta tutoreak eta egoiliarrak berak sinatu beharko dute. Salbuespenez, espezialista Irakaskuntza-unitatetik kanpo dagoen kasuetan eta aurrez aurreko bilera egin ezin denean, beste bitarteko batzuen bidez egin ahalko da (telefonoz, etab.) baina berdin erregistratu beharko da horretarako ezarritako fitxan, egoiliarrak geroago sinatuko badu ere.

#### **4. TXANDAKETEN EBALUAZIOA**

Egoiliarrek beren irakaskuntza-unitatetik kanpo egiten dituzten txandaketa guztietan, tutoreek eta/edo irakaskuntzako lankideek ebaluatu beharko dituzte; baita, ataletan zatituta daudelako, hala erabakita daukaten beren irakaskuntza-unitateetan egindakoetan ere.

## **AZKEN EBALUAZIOA**

Azken ebaluazioaren helburua da egiaztatzea prestatzen ari den espezialistak egoitza-aldian zehar eskuratu dituen gaitasunen mailak ahalbidetzen dion edo ez espezialista titulua lortzea.

Egoiliarrei egingo zaie egoitzako azken urteko ebaluazioaren ostean eta emaitza IV. eranskinaren (Urteko ebaluazio metatuaren fitxa) «Especialitateko azken ebaluazioa» izeneko atalean jasoko da. Azken ebaluazioaren argitalpena, berrikuspena eta ondorioak *183/2008 Errege Dekretuko 25. artikuluan (Egoitza-aldiaren azken ebaluazioa), 26. artikuluan (Azken ebaluazioen berrikuspena) eta 27. artikuluan (Azken ebaluazioaren ondorioak)* ezarritakoaren arabera gauzatuko dira.

Irakaskuntza-batzordeari dagokio Prestatzen ari diren Espezialisten Erregistro Nazionalera igortzea urteko eta azken ebaluazioak, baita haien berrikuspenen emaitzak eta, kasua hala denean, errekupeazio-aldiak ere, indarrean dagoen araudia aplikaturik, aipatutako erregistroak ezarrita dituen jarraibideen arabera.

⇒ ***Irakaslea gainbegiratzea, prestakuntza-kalitatea gainbegiratzea***

### **PRESTAKUNTZAREN GOGOBETETZE-EBALUAZIOA**

Prestatzen ari diren espezialistek jasotako prestakuntzarekiko gogobetetzea baloratuko dute ondorengo inkestak betez:

#### **1. – Osasun Sailak egiten duen prestakuntzaren gogobetetze-inkesta**

2009tik hasita –egiten jarraitzen da egun ere– Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak inkesta bat egiten die, online, egoiliarrei, azken hauek era anonimoan betetzen dutena.

Emaitzak zentro guztiei komunikatzen zaizkie eta haiei esker ezagut daiteke prestakuntzaren egoera bai gure zentroan, bai globalki eta bai espezialitate bakoitzaren kasuan, eta sareko gainerako zentroetako batez bestekoekin aldera daiteke.

2.- Egindako txandaketa bakoitzari –hala kanpokoak nola Irakaskuntza-unitateetako ataletakoak– buruzko gogobetetze-inkesta (**Prestatzen ari den espezialistak txandaketa**

**bakoitzean zerbitzuari egindako ebaluazioaren orria).** Gure zentroan prestatuko inkestak dira, egoiliarrek Irakaskuntzara igortzen dituztenak.

3.- Atxikita egon den zerbitzuari buruzko gogobetetze-inkesta, eskola-ikasturte bakoitzaren amaieran egingo dena (**Prestatzen ari den espezialistak bere zerbitzuari egindako urteko ebaluazioaren orria**).

Inkesta guztiak era anonimoan betetzen dira eta emaitzak Irakaskuntzako arduradunek espezialitate bakoitzeko zerbitzu-buruekin eta tutoreekin egindako bileretan jakinarazten dira, beharrezkoa den kasuetan hobekuntza-arloak ezartzeko xedez.

**\*\* Zentroaren plan estrategikoa eta irakaskuntzaren ebaluazioa.**

Urtean behin bilduko dira zentroko irakaskuntza-arduradunak Kudeaketako Zuzendaritzarekin eta Zentroko Zuzendaritza Medikoarekin. Irakaskuntza-kalitatearen kudeaketa-planaren arabera berrikusiko da programazioa.

KUDEAKETA PLANA - IRAKASKUNTZA ESPEZIALIZATUA			
Kanpoko txandaketa beste zentro batean egiteko eskakizuna			
0. berrik.	1992/11/01	4. berrik.	2015/02/20
1. berrik.	2011/05/02	5. berrik.	2013/04/05
2. berrik.	2011/12/09	6. berrik.	2016/09/21
3. berrik.	2013/04/05	6. berrik.	2017/03/13

**KANPOKO TXANDAKETA BESTE ZENTRO BATEAN EGITEKO ESKAKIZUNA  
ARABAKO ESI – AUO-KO IRAKASKUNTZA-BATZORDEA**

.....  
jaunak/andreak (NAN zk.: .....),..... URTEKO PRESTATZEN ARI DEN  
ESPEZIALISTA, ..... ESPEZIALITATEAN, ospitale honetan  
egoiliarren prestakuntzarako aurreikusitako txandaketa-planaren arabera, **TXANDAKETARAKO  
baimena eskatzen dio**, ARABAKO ESI-AUOko Irakaskuntza-batzordeari:  
ZERBITZU EDO ATALA.....  
ZENTRO/OSPITALEA.....  
ALDIA.....

ALDEZ AURREKO URRATSAK:

**TXANDAKETAREN HELBURUAK:**

Adeitasunez,

Vitoria - Gasteiz, 20...(e)ko .....ren ..... a

Tutorea  
Izpta.:

Prestatzen ari den espezialista  
Izpta.:

Zerbitzuburuak O.E.

<b>KUDEAKETA PLANA - IRAKASKUNTZA ESPEZIALIZATUA</b>	
<i>Prestatzen ari diren AUOko espezialisten txandaketetarako laguntza-eskakizuna</i>	
0. berrik.	1992/11/01
1. berrik.	2011/05/02
2. berrik.	2011/12/09
3. berrik.	2013/04/04
4. berrik.	2015/02/20
5. berrik.	2020/01/07

**AUOREN PRESTAKUNTZAN DAUDEN BARNEKO ESPEZIALISTEN KANPO-TXADAKETETARAKO LAGUNTZA-ESKAERA**

..... jaunak/andreak (NAN zk.: .....), ..... urteko AUOko prestatzen ari den mediku espezialista, ..... espezialitatean, Ohiko bizitokia ..... (e)n duena (probintzia: .....) eta Irakaskuntza-batzordeak txandaketa-aldia izendatu diona ..... ko ospitalean ...../...../..... tik ...../...../..... arte, ..... hilabetez.

**LAGUNTZA ESKATZEN DU HONETARAKO:**

- ETXEBIZITZA
- JOAN-ETORRIAK

**OHARRAK:**

.....  
.....

Vitoria-Gasteiz, 20....(e)ko .....aren ..... a

Adostasunez,

Izpta.: IKASKETA-BURUA

Izpta.: PRESTATZEN ARI DEN ESPEZIALISTA

**ZENTROKO ZUZENDARITZAREN BAIMENA**

AUOko zuzendaritzak, aurkeztutako eskakizuna ikusirik, erabaki du laguntza **BAI / EZ** ematea. **LAGUNTZAREN ZENBATEKO EKONOMIKOA** €.

Vitoria-Gasteiz, 20....(e)ko .....aren .....a

**O.E.**

**AUO-KO ZUZENDARI GERENTEA**

**O.E.**

**AUO-KO IRAKASKUNTZA-BATZORDEKO LEHENDAKARIA**

### AKREDITATUTAKO IRAKASKUNTZA-UNITATEETAKO ARDURADUNAK/TUTOREAK

IRAKASKUNTZA-UNITATEA	ARDURADUNA	TUTORE NAGUSIAK	SOSTENGUKO TUTOREAK
ALERGOLOGIA	Eduardo FERNÁNDEZ IBÁÑEZ doktorea.	Nagore BERNEDO BELAR doktorea.	M. Teresa AUDICANA BERASATEGUI doktorea.
ANALISI KLINIKOAK	Arantza MENDIZABAL ABAD doktorea.	Ainara AGIRREBALTZATEGI REVILLA doktorea.	Ana M <sup>a</sup> PUELLES LAHOZ doktorea.
ANATOMIA PATOLOGIKOA	Isabel GUERRA MERINO doktorea.	Blanca CATÓN SANTAREN doktorea M. Iciar SAÉNZ DE SANTAMARÍA GUTIERREZ doktorea.	Arantza ONAINDIA PEREZ doktorea
ANESTESIOLOGIA, BIZKORTZEA ETA OINAZEAREN TERAPIA	M. Carmen ITURRICASTILLO PEREZ doktorea.	Margarita LOGROÑO EJEJA doktorea. Noelia DE LA ROSA RUIZ doktorea. Ania ALBINARRATE FDEZ. doktorea. Ibai IRIARTE ZARATON doktorea	Borja BARRACHINA LARRAZA doktorea. Ana UGARTE MIERES doktorea.
DIGESTIO-APARATUA	Aitor ORIVE CALZADA doktorea.	Lander HIJONA MURUAMENDIARAN doktorea. Laura MARTÍN ASENJO doktorea.	
KARDIOLOGIA	José B. MARTINEZ FERRER doktorea.	Alfonso Miguel TORRES BOSCO doktorea.	
KIRURGIA OROKORRA ETA APARATU DIGESTIBOA	Cándido MARTINEZ BLAZQUEZ doktorea.	Alba VAZQUEZ MELERO doktorea M. Udiarraga OLIVARES GALDEANO doktorea.	
KIRURGIA ORTOPEDIKOA ETA TRAUMATOLOGIA	Pedro Ignacio RUIZ MONEO doktorea.	Alexis Israel FERNANDEZ JUAN doktorea. Nahikari NUNES UGARTE doktorea.	María SODUPE GONZELEZ doktorea. Ana Maria CIFUENTES LOBATO doktorea.
DERMATOLOGIA	Ricardo GONZÁLEZ PÉREZ doktorea.	Zuriñe MTEZ. DE LAGRAN ÁLVAREZ DE ARCAYA doktorea.	
ENDOKRINOLOGIA	Gonzalo Fernando MALDONADO CASTRO doktorea.	Clara Rosario FUENTES GÓMEZ doktorea.	Vanessa AROSA CARRIL doktorea
OSPITALEKO FARMAZIA	Carlos MARTÍNEZ MARTÍNEZ doktorea.	Roberto HERNANZ CHAVES doktorea.	Juan José GARCIA ALBAS doktorea.
HEMATOLOGIA ETA HEMOTERAPIA	José María GUINEA DE CASTRO doktorea.	Itziar OIARTZABAL ORMATEGI doktorea.	
FAMILIA ETA KOMUNITATEKO MEDIKUNTZA	M. Jesús SERNA SAGARMINAGA doktorea.	Rocio GUINEA SUAREZ doktorea. Francisco Rene PIZANO LARIOS doktorea.	José Javier ORIBE PLAGARO doktorea.
LANEKO MEDIKUNTZA	M <sup>a</sup> Inmaculada MURO RUIZ DE ARCAUTE doktorea.	Manuel ORIVE LARRAURI doktorea.	
MEDIKUNTZA FISIKOA ETA ERREHABILITAZIOA	Elena MARTÍNEZ GARCÍA doktorea	Zuriñe FERNANDEZ FERNANDEZ DE LECETA doktorea	
MEDIKUNTZA INTENTSIBOA	Sebastián IRIBARREN DIARASARRI doktorea.	Nerea ARETXABALA CORTAJARENA doktorea. Goiatz BALCISCUETA FLOREZ doktorea. Sergio CASTAÑO ÁVILA doktorea. Ana SAN SEBASTIÁN HURTADO doktorea	
BARNE-MEDIKUNTZA	Julia BARROSO NISO doktorea	Paola TARABINI-CASTELLANI doktorea. Igor GÓMEZ GARATE doktorea. David AVELLANAL LEGARDA doktorea	José J. PORTU ZAPIRAIN doktorea.
MEDIKUNTZA NUKLEARRA	Ignacio TOBALINA LARREA doktorea.	David GARCIA HERNANDEZ doktorea	
NEFROLOGIA	Guillermo ALCALDE BEZHOLD doktorea.	María Isabel JIMENO MARTÍN doktorea.	
PNEUMOLOGIA	José Luis LOBO BERISTAIN doktorea.	Laura TOMÁS LÓPEZ doktorea.	David BRAVO BLANCO doktorea.
LOAREN UNITATEA	Carlos Javier EGEE SANTAOLALLA doktorea.	-----	Ainhoa ALVAREZ RZ DE LARRINAGA doktorea.
NEUROFISIOLOGIA KLINIKOA	Eduvigis ÁLVAREZ VADILLO doktorea.	Iratxe TOÑA ZUAZUA doktorea.	
NEUROLOGIA	Gonzalo GONZÁLEZ CHINCHÓN doktorea.	Amaia Elena ALVAREZ DE ARCAYA ESQUIDE doktorea	

OBSTETRIZIA ETA GINEKOLOGIA	José Ángel LÓPEZ LÓPEZ doktorea.	Javier ALVAREZ-SALA TORREANO doktorea. Marta QUINTANA URIARTE doktorea.	
OFTALMOLOGIA	Gonzaga GARAY ARAMBURU doktorea.	Angela GOMEZ MORENO doktorea Jesus GARRIDO FIERRO doktorea	Arantza LARRAURI ARANA doktorea David RODRIGUEZ FEIJOO doktorea
ONKOLOGIA MEDIKOA	Severina DOMÍNGUEZ FERNÁNDEZ doktorea.	Patricia SEOANE COUSELLO doktorea.	Mireia MARTINEZ KAREAGA doktorea.
OTORRINOLARINGOLOGIA	Rafael GARCÍA SARDÓN doktorea.	Asier Iagoba LEKUE MADINABEITIA doktorea	Dr. Ahmed-Salen MOHAMED YOUSSEF (T. Apy)
PSIKOLOGIA KLINIKOA		Berta Carmen LALAGUNA PALACIO doktorea	
PSIKIATRIA		M <sup>a</sup> Purificación LÓPEZ PEÑA doktorea. Ana M <sup>a</sup> GONZÁLEZ-PINTO ARRILLAGA doktorea -	Carmen MARTIN REQUENA doktorea Iñaki ZORRILLA MARTINEZ doktorea Patricia PEREZ MARTINEZ DE ARRIETA doktorea Xabier PEREZ DE MENDIOLA ETXEZARRAGA doktorea
ERRADIODIAGNOSTIKOA	Eduarne ARTECHE DAUBAGNA doktorea.	Rebeca BASTIDA TORRE doktorea.	
ERREUMATOLOGIA	Jaime CALVO ALEN doktorea.	Juan Ramón DE DIOS doktorea.	
PEDIATRIA ETA ARLO ESPEZIFIKOAK IRAKASKUNTZA UNITATE MULTIPROFESIONALA	Juan Ignacio MONTIANO JORGE doktorea.	Juan Cruz LEN AGUILERA doktorea. Ignacio DÍEZ LÓPEZ doktorea. Aintzane EUBA LÓPEZ doktorea.  EIR: Idoia ZAMORA CORDERO and. EIR: Nagore LPZ. DE ARCAUTE MORENO and.	
UROLOGIA	Javier EXTRAMIANA CAMENO doktorea.	Josep María CAMPA BORTOLO doktorea.	
LARRIALDIAK	Pedro LOPETEGUI ERASO doktorea.	Juan Carlos ALONSO BLAS doktorea.	Ángel GARCÍA VEGA doktorea. Manuel ALCALDE CIGANDA doktorea. Nestor MORCHÓN GIL doktorea

### AKREDITATU GABEKO IRAKASKUNTZA-UNITATEETAKO IRAKASKUNTZA-ARDURADUNAK ETA - LANKIDEAK

UNITATEA/ZERBITZUA	ARDURADUNA	IRAKASKUNTZAKO LANKIDEA
AURPEGI-MASAIETAKO KIRURGIA	Juan Julian ALONSO FDZ PACHECO doktorea.	
KIRURGIA BASKULARRA	Eunice AMENEIRO PÉREZ doktorea.	Ana Isabel CABEZAS MAGAZ doktorea.
ETXEKO OSPITALIZAZIOA	José REGALADO DE LOS COBOS doktorea	Esther OCEJA BARRUTIA doktorea
MIKROBIOLOGIA	Arantza MENDIZABAL ABAD doktorea (Unitateko burua) Andrés CANUT BLASCO doktorea (Zerbitzuko burua)	Silvia HERNAEZ CRESPO doktorea
NEUROKIRURGIA	Romualdo FERREIRA MUÑOZ doktorea.	
ONKOLOGIA ERRADIOTERAPIKOA		
RADIOFISIKA OSPITALARIA	Gaspar SANCHEZ MERINO doktorea	





**Osakidetza**  
ARABA UNIBERTSITATE OSPITALEA  
HOSPITAL UNIVERSITARIO ARABA